

Irakaslearendako erantzunak

Eskailera - Ariketak

Jarri X erantzun egokiaren parean.

1. Nork kontaktzen du ipuin hau?

- | | |
|---|-----------------------|
| X | Protagonistak berak |
| | Andereño batek |
| | Arturoren lagun batek |
| | Herriko alkateak |

2. Jai egunetan, Arturok...

- | | |
|---|---|
| | ...zina joatea du gustuko. |
| | ...gidatzeko karneta ateratzeko ikasten du. |
| X | ...herri txikiak bisitatzen ditu. |
| | ...ardiak zaintzen ditu. |

3. Arturo ezin izan da iritsi herrira autoz. Zergatik?

- | | |
|---|--|
| | Gasolina bukatu zaiolako. |
| | Bidean harri asko zegoelako. |
| X | Bidea zuloz eta sasiz beterik zegoelako. |
| | Oinez ibiltzea gustatzen zaiolako. |

4. Zergatik uste duzu beldurtzen dela Arturo, dorrearen barruan?

Irteera ez zuelako aurkitzen

.....

5. Irakurri ondoko esaldiak, eta esan zeinek adierazten duen ipuinaren ideia nagusia:

X	Arturok, Haizotz herriko dorrean izandako esperientziaren ondorioz, dorre batean ez dela berriz ere inoiz sartuko erabaki du.
	Arturok, Haizotzera iristean, txori beltz bat ikusi zuen garrasika.
	Arturo neka-neka eginda zegoen eta eskaileretan lo gelditu zen.
	Arturo eskaileretan behera erori zen.

6. Ordena itzazu ipuinaren pasarte hauek, denboraren arabera: (1. 2. 3. 4.)

2	Arturo dorrera sartu zenean, eskaileretan gora lasai ibili zen, hasieran.
1	Herrira iristean txori beltz bat Arturoren buru gainetik pasatu eta dorrearen leiho batetik sartu zen. Harriturik bezala begiratu zion.
4	Esnatzerakoan, oreka galdu eta eskaileretan behera erori zen.
3	Neka-neka eginda zegoen Arturo hainbeste maila igo eta jaitsi, eta eskaileretan eseri eta lo gelditu zen.

7. Esan egia edo gezurra diren esaldi hauek: E/G

G	Haizotz herrian jende gutxi bizi zen.
E	Haizotz herriko bizilagun bakarra haizea zen.
G	Herriko dorrea itxita zegoenez, Arturo leihotik sartu zen.
E	Dorre barrua oso ilun zegoen.
G	Dorreko eskaileretan, lagun batekin topo egin zuen Arturok.

8. Nola bukatzen da ipuina? Konta ezazu labur-labur, zure modura.

Dorretik ateratzea lortu zuenean korrika eta itzulipurdika autora joan zen eta Haizotz herrira ez dela berriz ere inoiz itzuliko pentsatzen du, ezta dorre batean sartuko ere.

9. Hiztegia. Lotu hitza bere esanahiarekin: →

I tzulipurdika

- Zikin-zikina eginda etxera itzultzea
- Ipurdia erakustea.
- Buruz behera ematen den buelta

Garrasika

- Ahots indartsuz oihu egitea
- Hegan egitea
- Lasai-lasai jolastea

10. Ipuinaren zati hau lehenaldian kontatzen du protagonistak. I datz ezazu orainaldian, gaur gertatu balitz bezala.

“Behin, autoa hartu eta Haizotzera abiatu nintzen. Azken bost kilometroak oinez egin behar izan nituen, bidea zuloz eta sasiz beterik zegoelako.”

Gaur, autoa hartu eta Haizotzera abiatu naiz. Azken bost kilometroak oinez egin behar izan ditut, bidea zuloz eta sasiz beterik dagoelako.”

11. Bila ezazu hitz arrotza, eta azpimarra ezazu.

Adibidez: Txoria, inurria, txerria, txistorra, txitxarroa. (*Guztiak animaliak dira "txistorra" izan ezik.*)

- Begia, ilea, sudurra, belardia, ahoa, kopeta
- Laranja, sagarra, platanoa, pastela, mahats
- Euria, trumoia, kamioia, elurra, haizea
- Garrasika, oihuka, zalapartaka, isilik

12. Emandako testua zein liburutan aurkitu ahal duzu?

<input type="checkbox"/>	Inguruneko liburuan
<input checked="" type="checkbox"/>	Hizkuntzako narraziozko liburu batean
<input type="checkbox"/>	Atlas batean
<input type="checkbox"/>	Komiki liburu batean